

HITZAURRE GISA

Argazkiz osatutako liburu-sail honetan, oker ez banago, eta Hitzaurre honi dagokionez, ez du Donostiako Aurrezki Kutxak datuen zehaztasun hutsa eta hotza bilatzen.

Eta **1941-1950** urteei buruzko Sarrera hau Juan Antonio Garmendia adiskideak niri eskaintzean, are garbikiago agertu zait liburu-sorta honen xedea: geroni, eta gu baino gazteagoei ere bai, eta donostiar belaun berriari bereziki, bertako baten sendimenduak heleraztea, eta joandako urte horien lekukotasun beroa lortzea.

Antigutarra naiz, hein batean ezaguna denez; «Txillardegi» zenaren ondokoa, hain zuzen. Eta liburu honetan azaltzen diren gertakariak mamitzerakoan, 11 urtetatik 20 urtetara nituen nik. Urte horiek, hitz batez, haurtzarotik gaztarorakoak izan dira enetzat: nolazpait esateko, gurasoen mendetik jaregin, eta mundu zabalera azaltzen hasi nintzen urteak.

Esan beharrik ez dago, beraz, argazki hauek (batzu batez ere) begiratzean, arrapaladan pilatu direla oroitzapenak nire kaskoan; eta liburuaren prestatzaileen asmoa besterik balitz ere, nekez hitz egin nezakeela nik gauza hauetaz urrutitik edo hotzantzean.

Urte gogorak izan ziren haiek Euskal Herriarentzat; urte hitsak, urte latzak. Hauetxek dira bururatzen zaizkidan lehenengo hitzak.

Gose-urteak aurrenik (eta «estraperlo»-urteak batera, orduko hitzaz esateko). Ez azukrerik, ez oliorik, ez kaferik. Ordainduz gero, bai, jakina. Baina, nork ordainduko, eta nork ez? Bestela esanda, nork jasan zuen gehienik egoera beltz hura garai gogor hartan? Ez dut nik erantzungo. Irakurleak ere badaki.

Xehetasun pare bat erantsiko dut, hori bai; ondoko lerroetan agertuko direnen argigarri.

Aste hauetantxe, hain zuzen, Benta-Berri ondoko «Lizariturry-Rezola» fabrikak, orain lurrera eta desagertzerara doan berak, urte haietan, jaboigintzarako nonbait, kokoa lortu ohi zuen. Eta garraioa kautxu trinkozko gurpilak zituzten «U.S.A.» gerra-kamioi zatar eta zaratatsuetan egiten zen (ik. 88 orr.). Horretara, Miramar azpiko tunela pasa, eta aldapan beherakoan, freinatu egiten zuten txoferrek, Satrustegi Etorbidearen izkina parean ia-ia gelditu ere arte. Hots, Tolo-sarantz abiadura motelki berriro hartu behar hartan, auzoko mutiko mordoska bat agertzen zen brauki, handik eta hemendik. Eta azkar, kamioietara atzekaldetik igo, labanaz koko-zakuak urratu, eta fabrikarako koko-puskak eror arazten zituzten kaminora. Tarrapataka orduan puska haiek beste batzuk bildu, eta konturatu orduko «ekintza»ren arrastorik ez: dena «normal». Koko bez-tua eta itsustua zen hura, jateko batere ez egokia. Baina zaku urraketa hura behin eta berriz errepikatu zen leku berean.

Berrogeiko hamarkada osoan barrena iraun zuen jaki gabezia berak.

Eta oraingoan ogiari natxe kiola, neronek ere 1949an, inginadoretza ikastera Bilbora joan nintzenean, «Cartilla de Racionamiento» delako hura eraman behar izan nuen; eta «patronak» kontu osoaz ebakitzen zuen egunean eguneko; «kupoi» bedeinkatua, alegia.

Ogia ere urri, «ogi zuria» batez ere. Eta Bilboko kale kantoinetan, izkutuka, soto barruan maiz, «estraperlozko» ogia saltzen zuten emakume batzuk; eta guk, ikasleok (ikasleen moltsa tturrindua... ezaguna da) batzutan, ahal genuenean, huraxe erosten genuen. Ogi «ofiziala» ires-terik ez baitzegoen. «Grisak» agertzen ziren orduan. Eta ogia saskitan zeramaten emakume haiek, korrika joaten ziren, eta berehala desagertzen...

Paperik ere ez zegoen. Eta gasolinik ere ez. Gasolina erosteko ere, «racionamiento» eta «cupo» delakoak zeuden. Hain zuzen ere, gasolina harrapazka saltzen zen izkutuan. Eta «entxufe» baten edo besteren bidez erregai hura lortzea, mauka galanta zen. Precio ikaragarritan zabaltzen baitzen.

Eta orduantxe asmatu ziren «gasógenoak» (ik. 88, 90). Donostian bertan, nire oroimenak desbideratzen ez banau, marka batzu zeuden. Massé, adibidez; edo-ta, Uzkudun. Uzkudun ukabilkari famatua, bai; gerra aurrean Schmelling eta gainerako txapeldunekin ibilitakoa: Igara aldean tokan ari ez zenean, San Martín kaleko bere enpresan zegoen. Zilindro luze haiek goizetan azpikaldetik piztutzean, sekulako kiratsa zabaltzen zen bazterretan. Eta motoreek, fama zenez, oso gutxi «tiratzen» zuten.

Urte haiek, bestalde, intsentsu kutsua gorde dute nire oroitzapenetan. Ez fede kutsurik batere, noski; besterik baita fedea, nire ustez. Hura liturgi inflazioa zen: espantuek eta hanpuruskeriak, nagusi. Edo, nahiago baduzue, «konstantinar» eliza harroa. Prozesioak, peinetak, manteliña dotoreak, zementozko imajina erraldoiak; Eukaristi-Batzarre munstroak (50, 51), fededunak eta jainkogabeak batera bozgorailuek goizeko seiretan esnatzen zituztelarik.

Gerra usain nabarmena ere bazuten urte haiek; hamarkadako lehenengoez batez ere. Go-goan ditut oraindik soldadu aleman kankailu haien irudia, ginbaila gora, Donostiako kaleetan eta Paseo Berrian barrena, normalean beren bota eskergez batera zapalduz, eta ibilkera martziala ozenkiro entzun erazten zutelarik. Zeren-eta alemanak lasai asko ibiltzen baitziren Donostian eta Euskal Herri osoan zehar. 1941-1942ra arte batez ere, adiskide eta gogaide ziren Franco eta Hitler (ik. 148).

Fazista itxura bera ere, guztiz zehartu zen. Eta fazista-usainaz ere mintza daiteke: Urgull-eko eskola berriak (12), eta «Matxo» gaineko Bihotz Sakratuaren imajinak (134), frankismo «gazte» haren lekuko gisa gelditu dira garai hartako donostiarren oroitzapenetan.

Degrelle-ren etorrerak hetsi bide zuen urte sail haren azkeneko kapitulua (145). Maiatzeko goiz hartan ere, beste askotan bezala, banindoan ni Antiguatik «Donosti aldera». Oinez nindoan. Eta «Perla»ra heltzen ari nintzelarik, hegazkin txiki bat agertu zen hondartza gainean. Jaitsi egin nahi zuen, itxuraz; behin eta berriz egin baitzuen jira osoa Kontxaren gainetik. Eta halaxe egin zuen azkenean. Jaitsera gaizki kalkulaturik nonbait, halere; eta hegazkina olatuak lehertzen ari ziren eskualdean pausatu zen, ura gerriraino-edo zegoelarik. Hondartzara jaitsi ginen orduan gu, mutikook, emozioaz arnas-estuka, eta... hura izua! Soldadu aleman hark uretara jauzi egin zuenean, ametralladora-«gerrikoz» inguraturik egin zuen... Askoz ere beranduago jakin genuen huraxe zela Beljikako «rexisten» buruzagia (hango fazistek ere «Christus Rex» hitz bikotea hautatu baitzuten mogimenduaren ezaugarritzat).

Fazismoak eraikitako egitura arrotza, nabarmen zegoen bazter eta eginkizun guztietan. Halabarrez, maiz gertatzen zitzaigun besoak gora eta ahurrak zabalik tente jarri beharra (ik. 11, 12). Neronek ere, egunean ez dakit zenbat aldiz altxatu behar izaten nuen besoa Marianistetan, Aldapetan beraz, batxillergoko zortzi urteetan barrena. Jolasaldietarakoan, «pauza»-orduan, egunero errepikatzen zen lelo bera. Irakasleak guri: «¡Rompan filas!». Eta guk ikasleok arrapostu, besoak altxatuz: «Fran-co».

Zanpaketa eta gerra-ondo kutsu hitsa, ezerk ez zuen hobeki gordetzen Ondarretako gartzela zaharrak baino (118).

Askoz geroago jakin genuenez, 1947ra arte (ia-ia desagertu arte, beraz) gertatu ziren han «ateraketak» eta goiztiriko afusilaketak. Ez baita oso harrigarria: 1945an, oraindik 200.000 preso zeuden Francoren presondegietan. Eta 1946-1950 urte itxaropentsuetan Madrileko enbasadak hustu baziren ere, Francok, demokrazien bedeinkazioaz, beste 30 urtez zapalduko zituen bere menpekoak, euskaldunok barne.

Geroago, 1950an, hamarkadaren eta liburu honen beraren amaieran, hortaz, «barruan» (136) ezagutu nuen, zaharturik baina oraindik gordin, Salinas, Ondarretako borrhoroa; Aitzol afusilaturik hil aurretik, gartzelako giltzatar erraldoi batez begi bat atera zion berbera.

1948an guk, garai hartako antigutar gazteok, gartzela barruan gertatutako izugarrikeriez oraindik ezer gutxi bagenekien ere, ikus-minez joan ohi ginen Ondarretara bazkal-ondotan. Ahalik eta gehienik hurbiltzen ginen «Tenis» aldera («Arrubiko» aldera esatea egokiago zen, baina ezer ez genekien gauza hauetaz). Eta handik, «playa diplomática» omen zen eskualde hartatik, dinamitaz zartatzen zituzten horma hori zaharrak errauts artean prorroskatzen eta erortzen begiratzeko genituen; barru-poz irriño izkutu batez, egia esan.

Ondarretako edo Martuteneko «ostatu»ra joan baino lehenago (nik lehenengoa ez nuen barnetik ezagutu), Okendo kaleko Gobernura joan behar zen (118). Makina bat euskaldun jatorrek ikusi ditu han gorriak. Nork somatuko ote zukeen mende erdi bat lehenagoko San Sebastián erregezale eta handigurako hartan, «Casino Bellamar» dotore eta mundutarra, Manzanas eta gainerakoek zoko beldurgarria bihurtuko zenik?

Urte zail haietan ere, bizi egin behar zen.

Eta donostiarrok, eta gipuzkoar guztiok, halaxe egin genuen. Nola edo hala bizi, eta jolastu, eta maitasun hitzak esan, eta barre egin. Beharko!

Haize bala freskoak ekartzen zizkiguten, adibidez, «Easo» eta «Maitea» koroek (171, 172). Erdi debekaturik zeuden euskal kanta haiek hain egoki entzutean, bati baino gehiagori pitzen zitzaion erraietako galda izkutua: «euskaldunak gara».

Baina goazen bestetara.

Oso oroitzapen ona utzi zigun Carson-ek (160). Oraindik zutik zegoen Kursaal kasinoaren aurrean (betidanik hetsia, gure ustez), halako indar-erakusketa bitxi bat egin behar zuen Carson

izeneko batek: bere hortzez tiratuz, autobus bat mogituko zuela iragarri zuen. Eta haraxe joan ginen gazteok (eta hain gazte ez zen mordo bat ere bai). Eta Carson txiki hark (niri bederen txiki xamar iruditu zitzaidan) mogitu egin zuen autobusa. Hura arrakesta!

Figura gaitza urte haietan Ignazio Eizagirrerena (166). (Urte bertsuetan Eduardo Txillida, eta gero Bagur, Errealaren «goalkeeper» izan zena). Guk, antigutar gazteok, «bereziki» ezagutzen genuen portero famatua; garai hartan Eizagirrek (oker ez banago, bederen) Benta-Berriko gasolindegian («Sansustene» eta «Zubia» tabernaren parean, nolabait azaltzeko) lan egin zuelako. Bizikletaren gurpilak «ponpaz» besoz bete edo puztu beharrean, askoz ere interesgarriago zitzaigun gasolindegiko «aire comprimido»z puztutzea. Eizagirrek, orduan, guri adarra jo nahiz, etenean jartzen zizkigun «gomatikoak»... Barkatu egin behar, ordea.

Figura gaitza ere bai (nahiz gaur ahantzia), oraindik ere bizi-bizi, bixkor, Amaran bizi den Benito Díaz entrenatzailea (187): «cerrojo»aren sortzailea!

Kirolaren alorrean, beti, gogoangarri izan ziren guretzat Urumea-ko «ibar-erkerrean» antolatatu ziren moto-lasterketak (199). Nota hauek egiterakoan, berariaz, nahi-ta, buruz ari naiz, inolako kaseta-laguntzarik gabe. Oker ez banago, guztiz liluratu gintuen Jean Behrak irabazi zuen 1948-1949ko saria.

Amarako hedaketa zela bide (133. orrialdean agertzen den Anoeta-Amara hutsak txundituta uzten gaitu), berehala bukatu ziren ibai ertzeko lasterketa haiek.

Gorago esan dudanez, Kasino gisa ozta-ozta urtebeteko biziera laburra ezagutu zuen Kur-saal ezinago apaina (131), hetsita ezagutu dugu nire adinkideok. Bertako zinera joaten ginen. Besterik ez. Baina zirrikituetatik begitantzen genituen areto gaitzen eta lapitzezko zutarri borobil eta diztiranteen misterioak, harrিতuta uzten gintuen behin eta berriz. Zergatik abandonatu ote zen Kur-saala? (Zergatik suntsitu ote zen Uliá, ildo beretik, bere tranbia eta guzti? Donostiar askoren galdera).

Nola bukatuko neure lerro hauek, ordea, hamarkada hartan desagertu ziren tranbiei buruz (85, 183) ezertxo ere esan gabe? Nola hori ahantziko guk, batez ere, antigutarrok, auzoaren «urruntasunak» (!) beharturik, behin eta berriz «Venta-Berri» eta «Igueldo»ko tranbietan hamaikatan ibilitakook? Geroago agertu ziren trolebusak (89). Baina hauek, oso gaizki ez banago, askoz ere aztarren axalagoa utzi dute donostiarren bihotzetan, txilina joaz itzali zitzaizkigun tranbia zuriek baino.

Azkeneko ohartxo bat bukatu aitzin.

Oso oroitzapen sakona utzi zuela gu orduko haurrangan Zumaiko tren-erorketak (87). Santander hiriko erreketak beldurgarria eragindako haizete berak (1942an) bota zuen ibaira Bilbao-Donostia tren. Makinak bakarrik iraun zuen zubian, oroit naiz. Gizarajo haiek bagoietatik irten ezinik ito zirela zabaltzean, zauskada latza hartu zuen Gipuzkoako herriak; eta gertatutako urteen poderioz baizik ez zen ezabatu.

«Urteak joan, urteak jin», urruti gelditu dira liburuko hamar urteak. Baina gutxi gora-behera nire adin bertsua dutenek, kostata begiratuko dituzte argazki horiek erraietan halako ximiko izkurturik senditu gabe. Urte horiek «gure» urteak izan baitziren. Areago, gure gazte urteak. Eta zernahi gaintitzen ikastea onuragarria bada ere, nork gal eta ahantz lezake bere gaztaroa, bihotz ondoan urruti-min etsirik senditu gabe?

Donostiar askoren izenean, mila esker anitz Aurrezki Kutxari.

*Txillardegi
1988ko Urriaren 26an*